En marzo el Tribunal Supremo revocó la sentencia del TSJPV. Héctor Mata explica los pasos a seguir a partir de ahora. “Hemos presentado por primera vez en el Estado un recurso para solicitar al Tribunal Supremo que eleve cuestión prejudicial ante el TJUE. El objetivo es determinar si la prestación que se negó a una familia monomarental cumple con la normativa europea e internacional, si es acorde a la Carta Europea de Derechos Sociales, así como a la normativa europea e internacional en la materia”.

Este abogado considera que hay motivos tanto de formas como de

ELAk Auzitegi Gorenari
eskatu dio galde diezaiola
Europari ea guraso
bakarreko familia bati
jaiotza eta zaintzako
prestazio bikoitza
ukatzeak europar araudia
urratzen ote duen. ELA da
Estatu mailan horrelako
eskaria egin duen lehen
sindikaturia

fondo que avalan la solicitud de ELA. “Por una parte hay un tema de formas. Creemos que el TS está obligado a elevar esta cuestión al TJUE porque así le obliga el Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea porque entendemos que el tema jurídicamente no está resuelto. Hay varias sentencias en diferentes tribunales del Estado que discrepan de la sentencia del Tribunal Supremo. Además, no podemos olvidar que en el propio TS hubo un voto particular que sustentaba nuestra posición”.

“Pero, además de las formas, tenemos razones jurídicas de fondo. El recurso se basa en la existencia de una triple discriminación. La primera contra los y las menores de las familias monoparentales; la segunda sería la discriminación de género contra las mujeres trabajadoras. Por último, hay una discriminación contra las familias monoparentales frente a las familias biparentales”.

Vía interna, vía Europea

Si el Tribunal Supremo no admite o desestima el recurso, quedaría la vía abierta para poder acudir en amparo al Tribunal Constitucional y, posteriormente, una vez terminada la vía interna, al Tribunal Europeo de Derechos Humanos. “El TS no suele admitir la mayoría de recursos que se elevan, pero, en este caso, creemos que tiene motivos de sobra para admitir nuestro recurso. ELA es el primer sindicato que recurre un caso así a Europa. Primero hay que terminar jurídicamente con la vía judicial interna para poder acudir luego a los tribunales europeos”.

Héctor Mata tiene claro que ELA seguirá reclamando el derecho de las familias monomarentales al permiso de 24 semanas. “La sentencia recurrida perpetúa la discriminación de mujeres y deniega además el derecho de los y las menores a ser cuidadas en igualdad de condiciones que los y las hijas de familias biparentales. Seguiremos luchando en este caso hasta el final”. ■

600 euro baina gutxiagoko alokairuak, miraria gurean

ELAk etxebizitzaren arazoari aurre egiteko proposamenak jasotzen dituen txostena aurkeztu du



> Aitor Murgia

Etxea erosteko eta alokatzeko etengabe hazten ari diren prezioak; logelen alokairuen burbuila; 1.000 etxegabetze 2022an; turistifikazioa; gero eta jende gehiago etxerik gabe; baliabide publiko eskasak; ... Hori da etxebizitzaren sektoreak uzten digun argazkia. Horri erantsi behar zaio Europako Banku Zentralaren interes tasa igoera etengabea, jada %4ean kokatu dena. Igoera honek batez besteko hipoteka urtean 3.500 eurotan garestitu lezake kasu askotan. Etxebizitza-politiken eredia aldatu beharra dago. Hori da, besteak beste, *Etxebizitza Hego Euskal Herrian: eskubide bat merkatuaren menpe* txostenaren helburua.

ELA-REN PROPOSAMENAK

a) Etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatu

EAEko eta Nafarroako etxebizitza-legeetan bizilekua eskubide subjektibotzat aitortzen da. Beharrezkoa da eskubide hau behar bezala betetzea. Horretarako etxea izateko eskakizunak berrikusi behar dira, eta kolektiborik zaugarrienean bizileku duin bat izatea sustatu. Erakundeek eskubidea bermatu behar dute, eta laguntzen alternatiba desagertu behar da. Izan ere, hauek ez dute inola ere ziurtatzen merkatu librean etxebizitza bat izateko aukera.

b) Alokairua sustatu, ez jabetza

Politika publikoek betidanik lehenetsi izan dute etxeen salerosketa, ez alokairua. Politikak aldatu behar dira, helburu hauek lortzeko:

- Babespeko bizileku guztiak alokairura bideratu; alokairu soziala sustatu behar da. Sistema honek aukera ematen du tarteka berrikusteko, unean uneko baldintza eta beharriaz egokitu ahal izateko. Etxea esleitu zaien pertsonen egoera alda daiteke denborarekin.
- Babespeko etxearen kalifikazioa iraunkorra eta mugagabea izan behar da. Soilik honela sor daiteke etxebizitza-parke publiko zabal bat, zeinak beharriaz estaldura bermatuko duen.

c) Euriborrak hipoteka-kuotak berritzean dituen ondorioak mugatzea

Europako Banku Zentralaren neurrien ondorioz, hipotekak hilean 350 euro garestitzen ari dira, bankuen mesedetan, sekulako mozkinak dituzten bitartean. Beharrezkoa da Euriborra hipoteketan izaten ari den eragina mugatzea. Ezin da banku-sektorearen fede onaren esku utzi, Eusko Jaurlaritzak dioen bezala. Administrazioaren aldetik neurririk ez badago, ez-ordaintze eta etxegabetze uholdea egon daiteke etorkizunean.

d) Hutsik dauden etxe guztiak baliatu eta alokairura bideratu

Hutsik dagoen etxebizitza batek ez du bere funtzio soziala betetzen. Ezin da onartu etxe hutsak egotea, noiz eta bizilekua behar duen eta lortu ezinik dabilen jendea dagoenean. Etxebizitza ez erabiltzeagatik ezarritako kanonak gogorragoak izan behar dira, progresiboak jabe batek hutsik dituen bizileku kopuru eta balioaren baitan, eta pertsona fisikoa edo juridikoa den arabera. Etxe bat hutsik izatea garesti ordaindu behar da. Finantza-erakundeak derrigortu behar dira dituzten etxebizitza hutsak alokairu sozialera bidera ditzaten. Erakundeon esku daude egun etxebizitza gehienak, kasu askotan hutsik. Finantza-erakundeon esku dauden etxebizitza hutsak arautu, kontrolatu eta, behar izanez gero, desjabetu egin behar dira alokairuko programa publikoetan sartzeko eta behar dutenen esku jartzeko.

e) Etxegabetzeak geldiarazi

Hego Euskal Herrian (HEH) egiten den etxegabetze kopurua oraindik ere oso handia da, batik bat alokatutako bizilekuetan. Ezinbestekoa da berehala geldiaraztea ohiko bizilekuaren etxegabetzea, zorra dutenen edota errenta ordaintzeko sarrera aski ez dutenen kasuan. Bizileku alternatiboa bermatu behar da etxegabetze prozesuan dagoen ororentzat, etxe berean eta alokairu sozial baten truke, edota beste aukera batzuen bidez.

f) Alokairuko prezioak mugatu

Alokairuko prezioen igoera jasanezina da. Alokairuko Prezioen Indize bat

5.152 EUROS EL METRO CUADRADO

- Las capitales de Hego Euskal Herria están entre las diez más caras del Estado español; Donostia es la más cara con un precio de 5.152 euros el metro cuadrado.
- Los precios del alquiler no paran de subir: no hay prácticamente opciones de alquilar un piso derivando el 30% del salario medio en las capitales.
- Ante esta imposibilidad, la única opción de emancipación, especialmente para los jóvenes y personas migrantes, es compartir piso. Ante la escasa oferta de vivienda en alquiler y la mayor demanda de alquiler de habitaciones, los precios superan en muchos casos los 1.000 euros mensuales

sortu behar da errenta guztien igoera mugatzeko, ez soilik inguru tenkatuetan. Alokairuko prezioak mugatzeko xedea duten lege proposamen berriak aldatu behar dira, errenten murrizketa benetakoa izan dadin. Alokairuen jaitsiera hau etxejabe guztien kasuan ezarri behar da, handi zein txiki direla ere. Alokairuko etxe gehienak edukizaitale txikien esku daude. Alokairuko prezioak jaitsi nahi badira, lege bidez muga horrek erregimen honetako bizileku guztiei eragin behar die.

g) Erabilera Turistikorako Etxebizitzak (ETE) mugatu eta kontrolatu

Erakunde publikoek mugatu egin behar dute ostatu hauen eskaintza, eta are debekatu, beharrezkoa gertatuz gero, alokairuko etxebizitza-parkea handitzeko. ETEen eskaintza kontrolatu beharra dago, baita haiek iragartzen dituzten plataformena ere, esaterako Airbnb. Bestalde, ostatu turistiko horien erregistroa ere kontrolatu behar da gaur egun dagoen iruzurra ekiditeko.

h) Pertsona guztiak erregularizatzea

ELAk behin eta berriz eskatu du Atzerritarren Legea indargabetzea, eta *Regularización ya!* Herri Ekimen Legegilea babestu du. Etxebizitza-eskubidearen urraketa eta abusuak izugarri larriagotzen dira erregularizatu gabeko egoeran

dauden migratzaileen artean. Beraz, beharrezkoa da pertsona guztiak berehala erregularizatzea.

i) Gastu publikoa gehitu

Administrazioek etxebizitzako gastua asko gehitu behar dute. Horretarako politika hauetara gutxienez Barne Produktu Gordinaren %2 bideratu behar da. Gainera, gastu hau modu iraunkorrean egin behar da; horretarako dagoeneko erakita dauden etxeen birgaitzea eta erabilpena sustatu behar da. Agerian geratu da etxebizitzaren eraikuntza masiboak, ikuspuntu ekonomiko eta ekologikotik jasangaitza izateaz gain, ez dituela jendearen beharrianak asetzen. Bere ondorio bakarra etxebizitza-merkatu espekulatibo bat sortzea da. Gainera, kolektiborik zaurgarriengandik laguntzen zenbatekoa gehitu behar da, esaterako gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dagoen jendearentzat zein gazteentzat.

j) Parte-hartze handiagoa

Etxebizitza-politikak garatu behar dira, ez higiezin-politikak. Erabakiak hartzerakoan inplikatu egin behar dira gizarte-mugimenduak, batik bat etxebizitzaren arazoa ondo ezagutzen dutenak eta jenderik zaurgarriengandik eta etxegabeengandik gertuen daudenak. Benetako eredu aldaketa soilik gauzatu ahal izango da arazoaren eta irtenbideen zinezko sozializazioa egiten bada. ■



La lucha trans es lucha de clases

ELA unió la lucha trans y el sindicalismo en el Día Internacional de la Liberación Sexual

> Landeia

ELA organizó el 26 de junio en Gasteiz un acto con motivo del Día Internacional para la Liberación Sexual. El sindicato quiso hacer un ejercicio sincero de reflexión y debate en torno a la lucha trans y la representación de esta lucha en nuestra práctica sindical. Para lograr este objetivo participaron, además de **Nahia Fernández** (Área de Igualdad de ELA) cinco personas: **Mar Cambrollé** (ATA-Sylvia Rivera y presidenta de la Federación Plataforma Trans), **Mash** y **Brayan** de Loratz Lotu (Asociación de Trans Adultxs de Euskal Herria) y **Amets** y **Julen** de Ikusgune (Observatorio Contra la LGTBI+fobia de Gasteiz).

ELA quiso traer este tema a primera línea por varias razones. Por un lado, porque es una cuestión de derechos humanos. Pero también porque la lucha LGTBI+ y, especialmente, la lucha trans, forma parte de la lucha de clases. ELA tiene claro que la defensa de los derechos de las personas trans forma parte de la lucha sindical.

En los últimos tiempos, aunque de forma modesta, ELA ha empezado a trasladar sus reivindicaciones en defensa de los derechos del colectivo trans a las negociaciones tanto de empresa como de sector. Un ejemplo de ello es el hecho de que en el convenio del Metal de Gipuzkoa se haya recogido el derecho a ser

designado por su propio nombre, aunque los trámites administrativos aún no se hayan realizado.

“Trans, maricas y bolleras, somos clase obrera”

Mar Cambrollé incidió durante su intervención en la idea principal del acto: “Las personas trans, maricas y bolleras también somos clase obrera. Es imposible que otros hablen por nosotras. El aliado siempre tiene que ir un paso por detrás, nunca por delante y mucho menos encima”. En opinión de Mar Cambrollé el colectivo trans “ha sido el gran olvidado de la democracia. Las trans somos las personas con el mayor pico de discriminación y de agresiones, pero somos las que menos denunciamos. Y sufrimos un apartheid laboral. Nunca creí que íbamos a sufrir tanta violencia. Nos discriminan por ser mujeres y por ser trans”.

La presidenta de la Federación Plataforma Trans recalcó que no eligió ser pobre, ni eligió ser trans. “A las personas trans nos colgaron aquello del cuerpo equivocado, pero

en realidad todos y todas estamos en el cuerpo equivocado, nadie cumple los cánones de belleza que nos imponen". Por último, valoró la Ley Trans. "Esta ley separa la identidad de la medicina. Por fin, tras 45 años, lo hemos conseguido. En 2012 se empezó a reconocer la autodeterminación de género, y en 2018 se despatologizó a las personas trans. Esto fue muy importante".

No se cumple la ley

Mash y Brayan, del colectivo **Loratuz Lotu**, destacaron que la Ley Trans solo tiene en cuenta a una pequeña parte del colectivo, y que no garantiza que en la educación haya formación sobre este tema. Además, recalcaron, hay un problema: la ley no se cumple.

"Tenemos muchos problemas para hacer cualquier trámite. Incluso en entrevistas de trabajo oímos frases como 'esta empresa no es para una persona como tú'. Según datos oficiales del Ministerio de Igualdad, el 42% de las personas trans se han sentido discriminadas, bien cuando buscaban empleo o bien una vez en el puesto de trabajo. Además, el 65% de los contratos firmados tiene una duración menor a un año. Los datos del paro, por ejemplo, son muchísimos más altos en el colectivo trans".

Crecen las agresiones, tanto físicas como verbales

Julen y Amets, de **Ikusgune**, alertaron sobre la LGTBI+fobia. "El discurso de odio crece años tras año. Hay una deshumanización del colectivo trans. Las agresiones no son solo verbales o en las redes sociales, cada vez hay más violencia física y palizas. Este miedo también existe en el ámbito laboral. Hay personas que durante la transición dejan su trabajo por miedo a ser despedidas. En este contexto, necesitamos la alianza con los sindicatos, para poder crear entornos amables en todos los centros de trabajo". ■



Mar Cambrollé



Amets y Julen, del colectivo Ikusgune



De izquierda a derecha Nahia Fernández (ELA), Mash y Brayan (Loratuz Lotu)



Digitalizazioa: mehatxutik, aukerara

Orain arte antolatuta egon ez diren eremuak antolatzea ezinbestekoa da digitalizazioak langileentzat dituen arriskuak arintzeko

> Aiala Elorrieta

“Azkenaldian non lan egiten dugun ez esateko joera hartzen ari gara, ondo ikusiak ez gaudelako”, aitortu ziguten Kutxabank-eko ordezkariak. Digitalizazioak errotik aldatu du azken urteotan banka sektorea, baita Kutxabaneko langileena ere. Plantilla murrizketa izugarria izan da: aurrejubilazioak, bulegoak ixtea, zuzeneko arreta orduak murriztea... eta, horrekin batera, lan karga nabarmen handitu egin da. Gaur egun bost kanal ezberdinetatik egin behar dute lan: presentzialki, telefonoz, aplikazio informatikoaren bidez, bezeroen whatsapparen bidez eta bezeroekin duten onlineko elkarrizketa zerbitzuarekin.

Digitalizazioak lana egiteko erari gizatasuna kendu dio, eta garai batean mimatu egiten zen bezeroarekiko harremana eta gertutasuna, lausotzen ari dela. Ez hori bakarrik: talde eta ekipo lanak ere ahuldu dituela salatzen dute. Sektoreko langileen baldintzak okerrera egin dute, ez soilik lan karga handitu delako, baizik eta digitalizazioak berekin dituen arrisku psikosozialek bete-

beteen jo dituelako. *Multitasking*, deskonexio digitalik eza eta bezeroen *online* egiten dituzten balorazioek eragin dezaketen kaltea jarri zizkiguten besteak beste, mahai gainean.

2023ko apirilaren 28an Lan Osasunaren Nazioarteko eguna ospatzen da. Egun horretan bertan jardunaldia antolatu genuen Donostiako Kursaal Jauregian: ‘*Nola eragiten dio digitalizazioak langileen osasunari?*’. Ekitaldi horretan entzun genuen Kutxabaneko langileen testigantza. Saioa abiatzeko, Henar Álvarez Cuesta (Leongo Unibertsitatea) katedradunak lanaren digitalizazioak dituen arrisku fisiko eta psikosozialak aletu zituen. Kutxabaneko eta Gipuzkoako jantzi dendetako esperientziek, osatu zuten jardunaldia. Álvarezek marraztutako marko teorikoa, praktikara nola eraman daitekeen ikus arazteko.

Kursaalean, 500 bat militanteren aurrean, **Kutxabaneko ordezkariak** sentimendu bat aitortu ziguten: beren lanean sentitzen duten bakardadea. Hunkitu ziren, zirrara piztu zuten eta testigantza indarrez

La digitalización ha deshumanizado la forma de trabajar. Hubo un tiempo en el que se mimaba la relación y la cercanía con el cliente, que se está difuminando; se han debilitado los trabajos en equipo

Para organizarnos contra la precariedad, la miseria y la desesperación, tenemos a nuestro favor un sindicalismo de contrapoder. Hay que organizar los sectores ya organizados contra la digitalización

amaitu zuten: digitalizazioak langileen osasunean ondorio lazarriak izan ez ditzan, lanean jarraituko zutela esan zuten. Bakardadea sufritzen duten arren, kolektiboki antolatzen jakin, badakitelako.

Antolakuntza sindikalak ematen dituen fruituak azaldu zizkigun hain zuzen ere Gipuzkoako ehungintzako **Tamara Ibañez Santosek**. Taula gainera, 2023ko urtarrilean sektorean lortutako akordioa ekarri zuten, hitzarmena lortu arteko prozesua ardatz harturik.

Antolaketa, digitalizazioaren arriskuei aurre egiteko

Kontakizunak kapitalak digitalizazioaz egiten duen erabilera jarri zuten erdigunean: hobeto lan egiteko edota bezeroei arreta hobea emateko erabili orde, zertarako ari dira erabiltzen? Banka sektorean gertatzen den bezala, lanpostuak desagiteko. Denda asko itxi dituzte azken urteetan eta itxi ez dituztenek, oso itxura erakargarria duten arren, erdi hutsik dituzte. *Online* dendak nahi dituzte, klik bakoitzak sortzen duen lana aurrera atera behar dute: erosketak, itzulketak... Lan guztia makinek egiten dutela sinestarazi nahi da, baina errealtatean, dendetako langileek lan karga handiagoa dutela adierazi ziguten.

2021eko urte amaieran ekin zioten Gipuzkoan sektoretik hitzarmena berrizteari. Aldarrikapenak garbi



zituzten: hitzarmenak *online* salmentako enpresetan ere aplikatu zedila, soldata igoerak KPIari lotuta, lanaldian luzatzea eta ordu osagarriak finkatzea, atsedendia igande eta jaiegunetan, Aste Santuko larunbata eta inauterietako larunbata lan eguntzat ez hartzea, enpresek aldebakarrez hitzarmena ez aplikatzea eragozte eta ultraktibitate mugagabea. Eta, azkenik, *online* plusa: hain zuzen ere, digitalizazioak eragindako lan kargen igoeragatik, eta langileen funtzioen transformazioa, nolabait, konpentsatzera bideratuta.

Patronalak ez zuten entzun ere egin nahi *online* plusa: ez zutela hori akordioan sekula lortuko eta langileek salmenta era berrietara ohitu beharko zutela esaten zieten. Negoziazio gogorra izan zen, eta bilerak, blokeo asko eta 19 eguneko grebaren ondoren, akordioa eskuratu zen aipatutako puntu guztiekin. Eta bai, patronalak eman nahi ez zuten *online* plusa ere lortu zuten. Ez zen izen horrekin onartu, baina hitzarmenak jasotzen du denda nagusietako langile guztiek hilean 100 euro kobratuko dituzte lan hori egiteagatik.

Henar Álvarezek, digitalizazioaren arriskuei aurre egiteko proposatutako

neurriekin amaitu zuen bere hitzartzea, irtenbidea negoziazio kolektiboan dagoela azpimarratuz: "Ez dago irtenbide magikorik, teknologiaren arazoak bizitzaren alderdi guztietan eragiten duelako eta aldaketa oso handia eskatuko lukeelako, ez bakarrik produkzio-sisteman, baita bizitzeko moduan ere."

Arazoa noski, (beti bezala) kapitalismoa da. Teknologiaren inplikazio politiko eta sozialak aztertzen aditua den **Evgeny Morozovek** honelaxe borobiltzen du:

"Teknologiak oso bestelako sistema politiko eta ekonomiko bati lotuta egon behar du, justizia, elkartasuna eta berdintasuna lortzeko. Kapitalismoarekin eta bere forma neoliberalenarekin lotzen bada, miseria, prekariedade eta etsipena sortuko ditu".

Prekarietatearen, miseriaren eta etsipenaren aurka antolatzeko, kontrabotereko sindikalismoa dugu gure alde. Dagoeneko antolatuta dauden sektoreak digitalizazioaren aurka antolatzeko. Edo, zergatik ez, digitalizazioa mehatxu baino aukera gisa baliatzeko: oraindaino hain antolatuta ez dauden eremuak horren inguruan antolatzeko. ■

Euskal Herria Burujabe ekimena Euskal Herriaren metamorfosi ekologiko eta sozialerako bidean giltza-urrats berria izanen da.

Euskal Herria Burujabe: urriak 7 eta 8, Baionara!



> Xabier Harlouxet

Urriaren 7 eta 8an, Euskal Herria Burujabe Baionako karraketan iraganen da, eta Euskal Herriaren metamorfosi ekologiko eta sozialerako bidean giltza-urrats berria izanen da. 10.000 lagun itxoinak diren ekitaldi honen antolaketa 500 laguntzaile buru-belarri aktibatuko dira elkarlanaren bidez irudikatze eta eraikitzearen klimaren erronka, justizia sozialaren ildotik, altxatuko duen Euskal Herria.

Data horretan, 2013ko *Alternatiba*, *alternatiben herrixkaren* 10. urteurrena beteko da. Baionako Alternatiba, mobilizazio baten hasiera izan da, eta frantses Estatu osoan eta haratago ere egituratu du ehun bat tokiko talde dituen mugimendu indartsua. Ekitaldi berri honetan, hainbat urtetan ondu

den eta Euskal Herri jasangarri, burujabe eta solidario baten aldeko ibilbidea proposatzen duen Euskal Herria Burujabe lurralde proiektua nabarmenduko da.

10.000 inguru pertsona espero dira Euskal Herriko metamorfosi ekologiko eta sozialaren bidean giltza-etapa berri bat markatuko duen ekitaldi herrikoi, alai eta militante honentzat. Hitzaldi, erakusketa, kontzertu eta animazioen artean, topaketa honek 2023. urteko momento indartsu bat izan nahi du.

+1,5 °C-ko berotze globalaren atalasearen gainditzea

Klima-aldaketaren ondorioak gero eta nabarmenagoak dira eta jadanik gure bizimoldeak nahasten hasiak dira. Muturreko gertaera klimatikoak hainbat urtez mundu osoan ugartzen

ari badira, 2022ko udak elektroxoka gisa jokatu zuen Euskal Herrian frantses Estatuan bezala: aurrekaririk gabeko lehortea, temperatura errekorra, oihan-sute suntsitzaileak... Hilabete batzuk lehenago, IPCCren seigarren txostenaren argitalpenak egoeraren eta aurreikuspenen inbentarioa eguneratu zuen. 2030eko hamarkadan zehar +1,5 °C-ko berotze globalaren atalasea gaindituko da.

La iniciativa Euskal Herria Burujabe pretender dar un nuevo paso hacia la metamorfosis ecológica y social de nuestro pueblo

Klima-aldaketa gure biziak itzulipurdikatzen hasten delarik, erantzunak oraino osatugabeegiak eta ahulegiak dira kalteak aski mugatzeko esperantza atxikitze, maila globalean, Estatu mailan eta Euskal Herri mailan. Horren lekuko da Bizik 56 Herriko Etxerekin egin duen kargualdi-erdiko bilan-txostena, bertan, agertzen delarik, beren neurri eta erritmoari dagokionez, plantan emanak diren ekintza eta aitzinatzeak ez direla oraino larrialdi ekologikoari buru egiteko heinekoak. Krisiek, IPCC-k errepikaten dituen abisuek eta testuinguru ekonomiko zailak ez dute baikortasunera lerrarazten.

Covid19 pandemiak agerian utzi du gure lurraldeen ahultasuna eta mendekotasuna fluxu globalizatuekiko, baita oinarritzko beharretarako ere. Inflazioak eta atzerapauso sozialek bizitza zaildu egiten diote biztanleriaren gehiengoari.

Euskal Herria Burujabe lurralde proiektua

Hala ere, bere bizi-baldintzen jabe den Euskal Herri jasangarri eta solidario baten esperantza bizi da. Hobeki, egunero elikatua da, sortzen ari diren edo jadanik plantan diren lurraldeko hainbat inizatibaren lanari esker. Iniziatiba hauen ekintza indartzen da Euskal Herriaren ikuspegi gero eta zehatzago eta koherenteagoarekin: Euskal Herria Burujabe lurralde proiektuarekin.

Kontua da, beraz, desiragarria eta lorgarria den horizonte bat proposatzea, itxaropena eta determinazioa ematen dituen, jendarte osoa mobilizazio bultzada berri batean sartzeko, eta gure helmenean diren jarduteko bideak erakusteko.

Urriaren 7 eta 8an, beraz, lurralde proiektuaren ber izeneko ekitaldia iraganen da Baionako erdigunean ikuspegi hori helarazteko, ekiteko gogoia biderkatzeko eta biharko Euskal Herri eraldatua eraikitzeko. 2013 eta 2018ko Alternatiba ekitaldiak eta gero, Euskal Herriaren metamorfosi ekologiko eta sozialerako bidean giltza-urrats berri bat emateko xedea da.

Erronka ekologikoari buru egiteko lurralde mailako ekintza-palanka kolektiboak

Gure lurraldearen eskalan, erronka ekologikoari buru egiteko ekintza-palanka indartsuak badira. Eskala honetan, eraldaketak errexki hautematen dira, bakoitzak bere burua proiektu dezake. Askotan, gure lurraldeari atxikiak gira, zeren dimentsio emozional batekin lotuak gira: bizi-lekuak, oroitzapenez beteriko lekuak, familiako edo lagunarteko istorioekin.



Deskribapen abstraktuetatik urrun, zenbakietan, graduetan eta datetan oinarriturikoak, gabezia eta indarrak gabe uzten gaituztenak, lurraldearen eskalak gauzen ibilbidean lopia eskaintzen du eta engaiamendua errazten du.

Euskal Herria Burujabe lurralde-proiektuak, lurralde-ikuspegi horretatik abiatuz, Euskal Herriarentzat horizonte jasangarri, burujabe eta solidarioa eskaintzen du. Lurralde jasangarria, planetaren mugak (klima, bioaniztasuna, baliabideak...) eta bere mugak errespetatzen dituelako. Lurralde burujabea, ekonomia globalizatuarekiko menpekotasuna murrizten duena, elikagaien, energiaren, kulturaren, etab-en. kontrola duena. Lurralde solidarioa, elkarrekiko mendekotasunen jakitun, inor atzean ez geratzea bermatzen duena, irekia dena eta beste lurraldeekin harremana duena.

Hasiera batean Alternatiba 2018ren harira aurkeztutako lehen bertsioan, gero partekatu, eztabaidatu eta iparrorratz gisa erabili zen, elkarrekin hausnartzeko, Euskal Herriaren garatzen ari diren alternatiba andana. Lurraldearen ikuspegitik, gizarte osoa bereganatzen duen proiektu komun bat egitea da kontua.

Aterabide berritzaileak irudikatu

Euskal Herria Burujabe ekitaldi berri eta garrantzitsuak, beraz, lurralde jasangarri, burujabe

eta solidario baten proiektua ezagutaraztea izango du helburu. Jada hemen diren ekintza-palankak nabarmenduko ditu, Euskal Herri mailan mobilizazioari bultzada berria emateko eta klimaren erronkari buru egiteko.

40 hitzaldiz osaturiko egitarau batek tokiko hizlariak eta frantses Estatuak eta nazioarteko pertsonalitateak bilduko ditu haien analisiak edo esperientzia arrakastatsu eta inspiratzaileak partekatzeko, eta Euskal Herriko metamorfosi gauzatzeko aterabide berritzaileak irudikatzen.

Urriaren 7an, larunbatarekin, 14:00etatik goiti, hainbat animazio, sentsibilizazio tailer, formakuntza, karrika ikusgarri ezagutzeko parada izanen da Baionako karrketan, familian edo lagunartean. Arratseko 5etan mitin berezi bat egingen da, besta giroko gaualdiari tokia utzi aitzin, olatu, talo eta kontzertuen artean. Zea Mays Bilboko rock taldea, hor izanen delarik.

Igandean, zazpi auzo tematiko antolatutako izanen dira karrika ezberdinetan: tailerrak, erakusketak, animazioak, erakus-mahaiak eta abar. Ehun bat eragile eta egitura bertan presente izanen dira. Berrogei bat hitzaldik tokiko hizlariak, Estatu eta nazioarte mailako pertsonalitateak nahasiko dituzte. Bukaerako ekitalditik landa, kontzertuek girotuko dute gaualdia arratseko 6etarik goiti, bereziki, Zoufris Maracasen presentziarekin. ■



ELAk kanpaina bati ekingo dio Kimikako lan-baldintzak Euskal Herrian negoziatzen

ELAk hainbat ekimenez osatutako kanpaina bati ekingo dio Industria Kimikoko lan-baldintzak hemen negoziatzen; helburua da sektore honetako euskal enpresetan lan egiten duten 7.000tik gora langileen prekaritatea dakarten soldata kaskarrak, lanaldi luzeak eta gainerako baldintza txarrak saihestea. 2021, 2022 eta 2023 urteetan CCOO eta UGTk Madrilen hitzartu zituzten soldata igoerak %1, %2 eta %2koak izan dira, hain zuzen inflazioa oso altua izan den aldi berean. Hitzarmenaren iraupena bukatzea aplikatuko den KPIaren eguneratzearekin batera ez da atzerakinik ordainduko. Halako akordioak patronalarentzako oparia dira. Beste sektore batzuetan, esaterako Metalean, lehenik probintzia bakoitzean negoziatzen da eta, hortik abiatuta, enpresetako lan-hitzarmenak. Egia da ELAren bultzadari esker baldintzak kimikako enpresa ugartan negoziatu direla, baina edonola ere Estatuko hitzarmenak ezarritako oinarria oso apala da.

2024an berriro negoziatu behar da Kimikako hitzarmen estatala. ELAk hitzarmen probintzialak negoziatzeko saioa egingo du, Euskal Herriko errealitate soziolaboralari egokituak. Eskari hau funtsezkoa da eta, horregatik, ELAk beste sindikatuei dei egingo die aldarri honekin bat egin dezaten eta lurralde bakoitzean negoziatzea hasteko moduan izan gaitzen. ELA saiatuko da soldatak estatuko hitzarmeneko taulen gaineratik igo daitezkeen, horrela lortzearen kategoriaz guztietako soldatak bizitzeko modukoak izatea. Urtean 1.752 orduko lanaldia beste sektore industrial batzuetako lankideena baino askoz ere luzeagoa da, eta horregatik zeharo moztu behar da. Hitzarmen berri bat blindatu behar da, prekaritate eta diskriminaziorik ezarriko ez duena.

Huelga en la construcción de Bizkaia para denunciar el bloqueo de la negociación

Los días 29 y 30 de junio fueron jornadas de huelga en el sector de la construcción de Bizkaia. La mesa de negociación sigue bloqueada, sin que la patronal haga ninguna propuesta digna. ELA, con el 32,75% de la representación del sector, no aceptará subidas salariales por debajo del IPC. ELA está satisfecha con el seguimiento de la huelga en los centros de trabajo de la Construcción de Bizkaia; La patronal ASCOBI sigue bloqueando la negociación, y no quiere establecer ninguna mejora ni en salarios ni en otros aspectos. Siendo esto así, ELA considera necesario apostar por la movilización.

El decreto de residencias sigue sin garantizar las dos horas de atención directa y agrava la precariedad laboral

La modificación del decreto de residencias del Gobierno Vasco no va a mejorar las condiciones laborales ni el servicio de las residencias. Las ratios siguen sin garantizar un mínimo de tiempo por residente de dos horas, tal como ELA reivindica desde hace años, y las auxiliares de enfermería tendrán que realizar trabajos de enfermería que no les corresponden, entre otras cuestiones. Además, el Gobierno Vasco no ha contado con la participación de los agentes implicados en el sector, ni recoge las reivindicaciones de las trabajadoras para terminar con la precariedad.

El Gobierno Vasco plantea tan solo una mejora de siete minutos en la atención directa en los grados de dependencia 0 y 1, y once minutos en los grados 2 y 3. ELA considera que la ratio se debe establecer según la atención a prestar, no dependiendo de las jornadas laborales.

El preacuerdo logrado por LAB, UGT, CCOO y ESK en la limpieza de Osakidetza es insuficiente

LAB, UGT, CCOO y ESK y las empresas de limpieza de Osakidetza han llegado a un preacuerdo. ELA no acepta recortes y le parece incoherente que los sindicatos que durante todo el conflicto han defendido la homologación acepten un recorte de tres años, perpetuando de esta forma unas peores condiciones para el personal de limpieza subcontratada por Osakidetza.

JOXE ANGEL ULAZIA: SE HA IDO UN AMIGO

> Juan Cruz López

Se ha ido un amigo. El 6 de junio nos dejaba Joxe Angel Ulazia tras una dura lucha contra la enfermedad. Se fue con entereza, sin rendirse, mirando al frente como siempre hizo en vida .

Hemos compartido muchos momentos juntos. Nos conocimos hace treinta y tantos años. Se liberó en la sede de Eibar como responsable comarcal. Venía de la ikastola de Deba donde militaba en la Federación de Enseñanza. En el Bajo Deba se encontró una comarca en plena reconversión industrial. Su inmersión fue rápida, no quedaba otra. Cuántas veces me recordaba esos inicios. Me decía: "esto no será tan duro siempre...". Siempre no, pero fueron años difíciles.

Tiempo después y tras su paso por la FETA (Federación de Empleado@s, Técnicos y Alimentación) en Donostia y el Comité Nacional, recaló en la "sexta planta" de Barrainkua, en la Fundación Manu Robles-Arangiz. Viajábamos juntos casi a diario desde Eibar a Bilbao, intercambiábamos opiniones, discutíamos... Fue una etapa intensa en lo sindical y en lo personal. Cuando no coincidíamos nos encontrábamos en el barrio de Ipurua donde hemos compartido todo, vivencias, dudas... y también alegrías.

Amigo de sus amigos, comprometido, defensor de su visión, siempre dispuesto a ayudar en la que podía, gustaba del trato personal y directo. Sabía rodearse de gente, militantes, delegados y delegadas que habría conocido hacía años en esta o aquella empresa. Imposible listar los compañeros y amigos que gozamos de su amistad.

Joxe Angel sintió admiración y un profundo respeto por Valentín Bengoa, al lado del cual trabajó en "la sexta", rodeado siempre de una montaña de libros y papeles. Cuando Valentín se retiró lo visitaba a menudo en Loiola, y cada lunes, sin falta, le llamaba por teléfono para darle "el parte" de la organización, el punto de la coyuntura sindical y política que Valentín tanto agradecía. Valentín fue un referente y mantuvo con él una estrecha y afectuosa relación hasta su muerte.

Apasionado de la historia (no sólo por su formación académica), a Joxe Angel le gustaba escuchar a cualquiera que pudiese aportarle testimonios y vivencias que iban conformando un relato sobre la historia de nuestra organización. Su inquietud por la "memoria histórica" en general y de ELA en particular le llevo a escribir el libro *No pudieron romper el cerco* en el que reivindicó a una generación que luchó por la libertad contra la represión franquista.

Abertzale y euskaltzale, su preocupación por la lengua y su promoción fue constante dentro y fuera de la organización. Siempre dispuesto a ayudar y participar en cuantos actos se organizaban, representó a ELA en multitud de foros. Pero, sin lugar a dudas, la impartición de los cursos de formación y el contacto, sobre todo, con los nuevos delegados y delegadas, le permitió transmitir la visión y valores del sindicato a las personas más jóvenes que fueron incorporándose a la organización.

Amante de su familia, orgulloso de ser mutrikuarra, a Joxe Angel le tocó pasar momentos muy difíciles en lo personal, como la muerte de su esposa Juani. Ahora que se abría una nueva etapa en su vida, llena de ilusión y proyectos, una cruel enfermedad nos lo arrebató.

¡Descansa en paz, amigo!



30 DE NOVIEMBRE, HUELGA FEMINISTA GENERAL



Ahora, el movimiento feminista ha convocado una huelga general para el 30 de noviembre con una principal reivindicación: garantizar un sistema de cuidados público, universal, gratuito y de calidad, Reivindicaciones, por supuesto, que ELA hace suyas. Por lo tanto, ELA se suma a la huelga general convocada por el Movimiento Feminista de Euskal Herria para el 30 de noviembre.

En el ámbito de los cuidados, las instituciones de Hego Euskal Herria no cubren las necesidades básicas en las diferentes situaciones de dependencia: cuidado de personas mayores y menores, personas en situación de vulnerabilidad... A esto, además, hay que añadir que los últimos años ha predominado la privatización, con el consiguiente declive del servicio y el empeoramiento de las condiciones laborales.

Es imprescindible poner en valor los trabajos de cuidados que sustentan nuestras vidas, actualmente en crisis. Para cuidar y ser cuidadas dignamente, ■

ELA lleva años reivindicando un sistema de cuidados público, universal, gratuito y de calidad. Por ello, el sindicato lleva tiempo movilizándose para garantizar por ley los derechos de todas las personas dependientes. Un problema que se

ha acrecentado notablemente con la pandemia originada por la Covid-19. De este modo, ELA convocó tres jornadas de huelga tras la pandemia en diferentes ámbitos de cuidados: 17 de noviembre del 2020, 26 de enero del 2021 y 4 de marzo del 2021.



Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

Franqueo concertado

NO 08/129